

# COVID- 19aren inpaktua Euskadin\_ Turismo Sektorea

2020\_3\_16 / 2020\_4\_6

2020\_4\_7 / 2020\_4\_21

**BASQUE  
TOUR** *turismoaren  
euskal agentzia*  
*agencia vasca  
de turismo*



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO

# COVID-19ak Euskadiko turismo-jardueran duen inpaktuaren jarraipena

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, COVID-19ak eragindako ezohiko egoera dela-eta, informazioa bildu du EAEko turismo-sektorean, turismo-industriako enpresak pairatzen ari diren inpaktuaren gaineko hasierako neurketa egiteko.

Txosten honetan bildu da, lehenik, **martxoaren 16tik apirilaren 6ra** eta, bigarrenik, **apirilaren 7tik 21era**, jasotako informazioa, eta guztira **625 formulario** bete dituzten **604 enpresa**ren erantzunean dago oinarriturik.

Aldian behin eguneratuko da informazioa larrialdi sanitarioak eta haren ondorio ekonomikoek dirauten denboran.

## Datu orokorrak

Enpresa guztien urteko fakturazioaren aldaketaren estimazioa: **-64,3<sup>1</sup>**

Orain arte zenbatetsitako galerak: **131.119.311 euro<sup>1,2</sup>**

Eragindako lanpostuak: **3.745<sup>1</sup>**

### ORAIN ARTE EZARRITAKO LAN-NEURRIAK

AUTONOMOAK		ABEEE (% 50 - % 100)	KONTRATU-ETETEA	ALDI BATERAKOA EZ BERRITUA	JARDUNEAN	EGOERA ZEHAZTU GABE	ED/EE BESTELAKOAK
PRESTAZIOA DUTEN AUTONOMOAK	PRESTAZIORIK EZ DUTEN AUTONOMOAK						
108	67	2.218	93	175	485	125	474

<sup>1</sup> Datu horiek atera dira Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak 2020ko apirilaren 21a arte helarazitako formularioa bete duten enpresek emandako erantzunetik.

<sup>2</sup> 2020-4-24rako zenbatetsitako galeren eguneraketa: 132.032.522 €.

## Edukia



Ostatuak 1

11

Bidaia-agentziak



Biltzarrak, azokak eta bestelako ekitaldiak 19

25

Turismo aktiboa




Turismo-gidariak 29

31

Ostalaritza



# Ostatuak



Hotel-establezimenduen, nekazaritza-turismoko establezimendu eta landetxeen, kanpinen eta turismo-erabilerako etxebizitzaren artean lortutako informazioaren arabera, honako datu hauek ditugu:

> **44.044.988** euroko galera metatuak, erantzun duten enpresa guztietan (**656 enpresa**).

- > Aurreko datuan oinarrituta, Euskadiko ostatu-plaza guztien **galerak 92.331.668 eurokoak** direla zenbatetsi da.
- > Zenbatetsi da **2.449 lanpostu daudela eraginda**.

## 1.1 Hotel-establezimenduak

## 1.3 Kanpinak

## 1.2 Nekazaritza-turismoko establezimenduak eta landetxeak

## 1.4 Turismo-erabilerako etxebizitzak

\* Ondoren aurkezten diren datuak behar bezala interpretatzeko, garrantzitsua da kontuan hartzea txosten hau egiteko unean ostatuak itxita zeudela (martxoaren 19ko SND/257/2020 Aginduaren arabera, agindu horren bidez turismo-ostatuak establezimenduak jendearentzat irekitzeko debekua ezartzen da.

## 1.1 Hotel-establezimenduak



Hotel-establezimenduen galera metatuak, orain arte, **39.113.916 eurokoak** izan dira erantzun duten **80 hotel-establezimenduen** artean (Euskadiko hotel-establezimendu guztien % 26 eta hilean eskainitako plazan % 59).

2019koaren aldean, **2020ko urteko fakturazioak % 55 egingo du behera**, kalkuluen arabera.

Erantzun duten establezimenduen artean **1.990 enplegu eraginda** gertatu direla zenbatetsi da (alegia, Euskadiko hotel-establezimendu guztien **zuzeneko enpleguen % 53**).


Eragindako enpleguen % 60 baino gehiago lanaldiaren % 100eko ABEEE duten langile finkoei dagozkie.

Hotel-establezimendu gehienek erreserben % 80ren baino gehiagoren **ezeztatzeak edo data-aldaketak apirilean, maiatzean eta ekainean** dira gertatzen.

**Udako hilabeteetan** -hots **ekainean, uztailan, abuztuan**- eta **udazkeneko** hilabeteetan -hau da, **irailean eta urrian**-, ordea, hotel-establezimendu gehienetan ezeztatzeak edo data-aldaketak erreserba guztien % 50 edo % 25era jaitsi dira.

**Erreserba berriak** aurtengo **udako** eta **udazkeneko** hilabeteetan pilatzen ari dira.


### 1.1.1 Erantzun duten hotel-establezimenduen ezaugarriak



80 hotel horiek, guztira, hilean **400.314 plaza** eta **216.582 room night** eskaintzen dituzte\*.

Hotel-establezimenduetan **azpikontratatzan** dituzten zerbitzu nagusiak **ikuzte-zerbitzua, instalazioen mantentze-lanak eta garbiketa** dira.


Enplegu motak:



### 1.1.2 Hotel-establezimenduen eta haien langileen egoera

Hotel-establezimenduen % 94 itxita daude, alarma-egoera altxatu arte, eta % 6 partzialki irekita, kontingentzia-zerbitzuei erantzuteko.


Ezarritako lan-neurriak:



\*Hilean zenbat gela dauden erabilgarri guztira.

### 1.1.3 Ezeztatzeak eta data-aldaketak

COVID-19a Euskadin agertu zenetik **212.262 room night ezeztatuta edo data aldatuta gertatu dira** guztira; hau da, eskaintza osoaren % **99**. Eragindako 212.262 *room night*etatik **148.204** behin betiko ezeztatu dituzte (guztien % **70**), eta data aldatutako erreserbak, berriz, **64.058** izan dira (guztien % **30**).



### 1.1.4 Erreserba berriak

COVID-19a Euskadin agertu zenetik jasotako erreserba berriak 2020ko **udako uztail** eta **abuzturako** eta **udazkeneko irail, urri** eta **azarorako** izaten ari dira batez ere. Erreserba berriak gehienbat merkatu hauetatik etorri dira: **barneko merkatua** -Euskadi-, **Estatuko merkatua** -Madrilgo Erkidegoa eta Katalunia nabarmentzen dira-, eta **nazioarteko merkatua** -Frantzia eta Erresuma Batua, besteak bete-.

### 1.1.5 Ezeztatzeko gastuak

Ezeztatzeko gastuei dagokienez, hotel-establezimenduen % **70ek ez dizkiete inoiz kobratu** bezeroei ezeztatzeko gastuak, eta % **30ek ia inoiz ez** (bezeroen % 25 ingururi).

## 1.2 Nekazaritza-turismoko establezimenduak eta landetxeak



Nekazaritza-turismoko establezimendu eta landetxeetako orain arteko **galera metatuak 933.434 eurokoak** izan dira **erantzun duten 170 enpresen** artean (nekazaritza-turismoko establezimendu eta landetxe horiek sektoreko guztien % 42 dira, eta hilean eskaintako plazen % 50 hartzen dituzte).

2019koaren aldean, 2020. urteko **batez besteko urteko fakturazioak % 71 egin duela behera** jotzen da.

Erantzun dutenen artean **221 enplegu gertatu dira eraginda**, hau da, sektore hartan sortutako enpleguaren % **47**.

Ukitutako lanpostuen ia **%100 profesional autonomoak dira**, eta horien artean gaur egun erdiek ezin izan dute aparteko prestazioa jaso.


Nekazaritza-turismoko establezimendu eta landetxeetan erreserba guztien % **80ren baino gehiagoren ezeztatzeak edo data-aldaketak** izaten ari dira **martxo** eta **apirilerako**.

**Okupazio-mailaren jaitsiera handia** dago 2020ko hilabete guztietan, 2019ko aldi berekin alderatuta, batez ere **apirilean (-% 97)**, **maiatzean (-% 91)** eta **ekainean (-% 82)**.

\* 2020-4-24rako zenbatetsitako galeren eguneraketa: 1.846.645€.

### 1.2.1 Erantzun duten nekazaritza-turismoko establezimendu eta landetxeen ezaugarriak

Lurralde Historikoen araberrako banaketa:




Erantzun duten Euskadiko nekazaritza-turismoko establezimendu eta landetxeak **Nekatur** Euskadiko Nekazaritza Turismo eta Landetxeen Elkarteko kide direnen % **71** dira.

**Arabako 29 establezimenduak** lurralde horretan elkartean dauden % **66** dira; **Bizkaian** kokatutako 41ak lurralde hartako guztizkoaren % **62** dira, eta **Gipuzkoako** 100 establezimenduak, azkenik, lurralde horretako % **78** dira.

170 nekazaritza-turismoko establezimendu eta landetxe horiek **hilean 64.650 plaza eskaintzen dituzte guztira**, eta **30.690 room night**.

	EUSKADI	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Guztizko plazak hileko	64.650	10.530	15.270	38.850
Room nightak hileko	30.690	4.920	7.680	18.090

Kudeaketa motak:




Nekazaritza-turismoko establezimenduek eta landetxeek batez ere **azpikontratatzan dituzten zerbitzuak ikuzte-zerbitzua, instalazioen mantentze-lanak eta aholkularitza-zerbitzuak** dira.

### 1.2.2 Nekazaritza-turismoko establezimendu eta landetxeen eta haien langileen oraingo egoera


Nekazaritza-turismoko establezimendu eta landetxeen **partzialki irekita**, kontingentzia-zerbitzuei erantzuteko. **% 96 itxita** daude, alarma-egoera kendu arte, eta **% 4**

Ezarritako lan-neurriak:



### 1.2.3 Ezeztatzeak eta data-aldaketak

COVID-19a Euskadin agertu zenetik **17.995 room night ezeztatuta edo data aldatuta gertatu dira** guztira; hau da, **eskaintza osoaren % 59**, hau da, mota honetako ostatuen bi hilabete osotik gorako ohiko okupazioa. **Behin betiko ezeztatu dituzte 15.658 room night** -hau da, ezeztatuta edo data aldatuta gertatu diren **room night guztien % 87-**, eta **2.337 room nighten data aldatu dute** -ezeztatuta edo data aldatuta gertatu diren **room nighten % 13**, alegia-.



### 1.2.4 Erreserba berriak

COVID-19a Euskadin agertu zenetik jasotako erreserba berriak **2020ko abuztu eta irailerako** erregistratzen ari dira. Erreserba berriak egiten ari diren **jatorri-merkatuak** gehienbat hauek dira: **barneko merkatua -Euskadi-, Estatuko merkatua -Madrilgo Erkidegoa eta Katalunia** nabarmentzen dira-, eta **nazioarteko merkatua -Alemania**, adibidez-.

Krisiaren hasieratik ia ez da erreserba berririk erregistratu (**56 erreserba berri 170 establezimendutan**, hau da, **0,30 erreserba/establezimendu**).

### 1.2.5 Ezeztatzeak gastuak

Ezeztatzeak gastuei dagokienez, ostatu **guztiek** esan dute **ez dutela** erreserben **% 100 kobratu**.

## 1.3 Kanpinak



Kanpinen **galera metatuak**, orain arte, **542.500 eurokoak** izan dira erantzun duten **12 kanpinetan** (Camping en Euskadiko Federazioan erregistratutako kanpin guztien % 55 eta hilean eskainitako plazen % 35).

2019koaren aldean, **2020. urteko batez besteko urteko fakturazioak % 60** egingo duela behera jotzen da.


Kanpinak adierazi dute **111 enplegu gertatu direla eraginda**; horietatik, **% 70 langile finkoei** edo lanaldiaren **% 100eko ABEEE duten aldi baterako langileei** dagozkie.

**Apirilean eta maiatzean** izaten ari dira erreserba **guztien % 75etik** gorako ezeztatzeak edo data-aldaketak.

**Okupazio-mailaren jaitsiera handia** dago 2020ko hilabete guztietan, batez ere **apirilean (-% 83)**, **maiatzean (-% 100)** eta **ekainean (-% 85)**.

### 1.3.1 Erantzun duten kanpinen ezaugarriak

Erantzun duten kanpinen lurralde-banaketa honako hau da:



12 kanpin horiek **73.800 plaza eskaintzen dituzte guztira hilean**.


Kanpinen lan-erradiografiak erakusten du **% 40 langile finkoak**, **% 39 aldi baterako langileak** eta **% 15 langile finko etendunak** direla.

Kanpinen **erdiak baino gehiagok** adierazten dute **ez dutela zerbitzurik azpikontratzen**. Zerbitzuak azpikontratzen dituzte bereziki: **garbiketa, instalazioen mantentze-lanak, zaintza, sorospena, animazio-lanak, prebentzio-zerbitzuak**, besteak beste.

### 1.3.2 Kanpinen eta haien langileen oraingo egoera


Ia kanpin **guztiak itxita** daude, harik eta alarma-egoera altxatzen den arte.

Ezarritako lan-neurriak:



### 1.3.3 Ezeztatzeak eta data-aldaketak

COVID-19a Euskadin agertu zenetik **962 erreserba betiko ezeztatu dituzte**, eta erreserben **% 9ri**, berriz, **data ezeztatuta edo data aldatuta gertatu dira** guztira. Ezeztatu aldatu zaie. dituzten edo data aldatu duten erreserba guztien **% 91 behin**



### 1.3.4 Erreserba berriak

COVID-19a Euskadin agertu zenetik jasotako erreserba berriak 2020ko **ekain, abuztu** eta **irailerako** erregistratzen ari dira.

Erreserba berriak gehienbat merkatu hauetatik etorri dira: **barneko merkatua -Euskadi-, Estatuko merkatua -Madrilgo Erkidegoa, Katalunia eta Valentziako Erkidegoanabarmetzen dira-**, eta **nazioarteko merkatua -Frantzia eta Alemaniako bezeroak nabarmetzen dira-**.

### 1.3.5 Ezeztatzeko gastuak

Ezeztatzeko gastuei dagokienez, kanpinen **% 66k** adierazi dute **ez dizkietela inoiz kobratu** bezeroei ezeztatzeko gastuak, eta **% 34k** bezeroen **% 25 ingururi** kobratu dizkietela.

## 1.4 Turismo-erabilerako etxebizitzak



Turismo-etxebizitzaren enpresa kudeatzaileen **galera metatuak**, orain arte **3.455.138 eurokoak** izan dira erantzun duten **394**etan (Aparture Euskadiko Etxebizitza Turistikoaren Elkarteko kide diren etxebizitza guztien % 83).

2019koaren aldean, **2020. urteko batez besteko urteko fakturazioak % 70** egingo duela behera jotzen da.

Erantzun dutenen artean **127 enplegu daude eraginda**; enplegu horien **% 59 lanaldiaren % 100 edo % 50eko ABEEEko langile finkoei** dagozkie.

**Apirilean eta maiatzean** izaten ari dira turismo-etxebizitzaren enpresa kudeatzaileen erreserba **guztien % 80etik** gorako **ezeztatzeak edo data-aldaketak**.


**Okupazio-mailaren jaitsiera handia** dago 2020ko hilabete guztietan, batez ere **apirilean (-% 99)**, **maiatzean (-% 97)** eta **ekainean (-% 87)**.

### 1.4.1 Erantzun duten turismo-etxebizitzaren enpresa kudeatzaileen ezaugarriak

Lurralde Historikoa: GIPUZKOA % 100.

394 enpresa horiek **54.420 plaza eskaintzen dituzte** guztira hilean.

Enplegu motak:




Turismo-etxebizitzaren enpresa kudeatzaileek **azpikontratatzeko zerbiztu nagusiak ikuzte-zerbitzua, instalazioen mantentze-lanak eta garbiketa** dira.

### 1.4.2 Turismo-etxebizitzaren eta turismo-erabilerako logelen eta haien langileen oraingo egoera

Turismo-etxebizitzaren **% 66 itxita** daude, alarma-egoera altxatu arte, eta **% 34 partzialki irekita**, kontingentzia-zerbitzuei erantzuteko.


Ezarritako lan-neurriak:



### 1.4.3 Ezeztatzeak eta data-aldaketak

COVID-19a Euskadin agertu zenetik **16.958 plaza ezeztatuta edo data aldatuta gertatu dira** guztira; hau da, eskaintza osoaren **% 58**.

**Behin betiko ezeztatu dituzte 16.372 plaza**, hau da, ezeztatuta edo data aldatuta gertatu diren **room night guztien % 97**, eta **586 plazen data aldatu dute**, ezeztatuta edo data aldatuta gertatu diren plazen **% 3**, alegia.



### 1.4.4 Erreserba berriak

COVID-19a Euskadin agertu zenetik jasotako erreserba berriak 2020ko udarako **-uztail eta abuzturako-** eta udazkenerako **-irail, urri eta azarorako-** erregistratzen ari dira batez ere.

Erreserba berriak gehienbat merkatu hauetatik etorri dira: **Estatuko merkatua -Madrilgo Erkidegoa eta Katalunia nabarmentzen dira-**, eta **nazioarteko merkatua -Frantzia eta Erresuma Batua, besteak bete-**.

### 1.4.5 Ezeztatzeak gastuak

Ezeztatzeak gastuak dagokienez, interiorismo-etxebizitzaren enpresa kudeatzaileen **% 70ek ez dizkiete inoiz kobratu**

bezeroei **ezeztatzeak gastuak**, eta **% 30ek ia inoiz ez** (bezeroen **% 25 ingururi**).

# Bidaia-agentziak



Bidaia-agentziak zerbitzu-hornitzaileen eta bezeroen arteko bitartekariak dira, eta, azken buruan, bezeroei erantzun egiten diete era horretako kontsultak dituztenean.


Formularioa bete duten era guztietako bidaia-agentzien (23) orain arteko galera metatuak, hala hartzeko nola igortzeko jarduerarako, **15.707.891 eurokoak** izan dira.

2019koaren aldean, **2020. urteko batez besteko urteko fakturazioak % 81** egingo duela behera jotzen da.

Guztira **zuzeneko 820 enplegu** gertatu dira eraginda bidaia-agentzien jardura hartzaile zein igorlean.


## Erantzun duten bidaia-agentzien ezaugarriak

Bidaia-agentzien lurralde-banaketa:



Batez ere azpikontratatzan dituzten zerbitzuak turismo-gidariak, aholkularitza, zerbitzu informatikoak, pertsonak garraiatzeko zerbitzuak, otordu-zerbitzuak eta ostatu-zerbitzuak dira.


Enplegu motak:



## Bidaia-agentzien eta haien langileen oraingo egoera

Gaur egun, bidaia-agentzien % **62k** jardunean jarraitzen dute, % **22** ez daude jardunean, eta agentzien % **16k** ez dute oraingo egoera zehaztu.

Ezarritako lan-neurriak:



### 2.1\_ Agentzia hartzaileak:

Taldeen erreserbak

Banako bezeroak edo familiak

Beste agentzia batzuk

### 2.2\_ Agentzia igorleak






## 2.1.1 Agentzia hartzaileak: Taldeen erreserbak




### 2.1.1.1 Bidaia-agentzia hartzaileak (taldeen erreserbak)




### 2.1.1.2 Ezeztatzeak eta data-aldaketak

COVID-19a Euskadin agertu zenetik taldeen **307 erreserba ezeztatuta edo data aldatuta gertatu dira** guztira, erantzun duten **16 bidaia-agentzia hartzaileek** eman duten informazioaren arabera. 307 erreserba horietatik, **% 97** ezeztatu egin dituzte, eta **% 3**ren data aldatu dute.




#### Hasieran egin beharreko hilabetea:



### 2.1.1.3 Data aldatuta duten erreserbak hartu dituzten hilabeteak

Etorkizuneko aurreikuspenei dagokienez, agentziek adierazi dute taldeak berriz hartzea espero dutela, honako hau aurreikusita:



### 2.1.1.4 Erreserbak ezeztatzeko gastuak eta hornitzaileen itzulketak

Taldeen erreserbak ezeztatzeko gastuei dagokienez, agentzien **% 94k** adierazi dute ez dutela ezeztatzeko gasturik kobratu. Agentzien **% 2k** baino ez dizkiete ezeztatzeko gastuen **% 25** kobratu bezeroei, eta agentzien beste **% 2** batek ezeztatzeko gastuen **% 100** kobratu diete taldeei.


Agentziak beren hornitzaileen guztizko itzulketak (**% 100**) jasotzen ari dira taldeen **% 62**rako; agentzien **% 30** ez dira jasotzen ari beren hornitzaileen itzulketak; agentzien **% 2k** adierazi dute hornitzaileen **% 75en** itzulketak jasotzen ari direla; agentzien beste **% 2** batek adierazi du **% 50en** itzulketak jasotzen ari direla; eta beste **% 2** batek, berriz, hornitzaileen **% 25en** itzulketak jasotzen ari direla jakinarazi du.

### 2.1.1.5 Ezeztatutako edo data aldatutako taldeen erreserben tipologia


Erantzun duten bidaia-agentzia hartzaileei ezeztatutako edo data aldatutako taldeen erreserben **% 21** Euskadira lan-arrazoiengatik datozen bezeroenak dira.

Erreserben **% 21** horietatik **% 65** enpresa-pizgarrirei dagozkie; **% 14**, biltzar edo konbentzio bati lotutako programei, eta **% 20**, beste tipologia batzuei, hala nola bilera, bisita tekniko eta abarrei.


Ezeztatutako edo data aldatutako taldeen erreserben sektore nagusiei dagokienez, bereziki honako jarduera hauei lotuta daude:




#### Bidaia-programen iraupena:




#### Taldeen bolumena:



Adierazitako jatorriari dagokionez, erreserbek honako jatorri hauek dituzte:



Bidaia-programetan jasotako zerbitzuei dagokienez, galdetutako agentziek hau adierazi dute:



## 2.1.2 Agentzia hartzaileak: Banako bezeroak



COVID-19ak Euskadiko bidaia-agentzia hartzaileen banako bezeroen erreserbetan zer eragin izan duen aztertuko dugu oraingoan. Banako erreserbak bezero partikularrei, bikoteei, familiei eta abarrei dagozkie.

15 bidaia-agentzia hartzailek erantzun dute; alegia, ATRAE eta ASOARTE elkarteetako kide diren Euskadiko bidaia-agentzia hartzaileen % 56k.




### 2.1.2.1 Ezeztatzeak eta data-aldaketak

COVID-19a Euskadin agertu zenetik banako bezeroen 8.572 erreserba ezeztatuta edo data aldatuta gertatu dira guztira.


8.572 erreserba horietatik 7.060 behin betiko ezeztatu dituzte (% 82), eta 1.512, berriz, data aldatutako erreserbak dira (% 18).

GUZTIZKO EZEZTATZEA EDO ALDAKETA (ERRESERBEN % 100):




### 2.1.2.2 Data aldatuta duten erreserbak hartu dituzten hilabeteak

Behin betiko ezeztatu ordeaz data aldatu dieten erreserba horiei dagokienez, gaurko egunean, erreserba berrien jarraibidea honako hau da:




### 2.1.2.3 Ezeztatzeko gastuen itzulketa

Ezeztatzeko gastuen itzulketari dagokionez, bidaia-agentzia hartzaileek erreserben ehuneko hauetarako itzuli dituzte:



### 2.1.2.4 Hornitzaileek egindako gordailuak itzultzea

Hornitzaileek egindako gordailuak bidaia-agentzia hartzaileei itzultzeari buruzko azterketa eginda, honako egoera honen berri eman dute:



### 2.1.2.5 Ezeztatutako edo data aldatutako erreserben bezero motak

Erantzun duten bidaia-agentzia hartzaileei ezeztatutako edo data aldatutako banako erreserba gehienak aisiagatik datozen bezeroenak dira. Ezeztatutako edo data aldatutako banako erreserba gehienak Euskadira bikoteenak eta, batez ere, seniorrenak dira.

## 2.1.3 \_ Beste agentzia hartzaile batzuk



Txosten honetan bidaia-agentzia hartzaileen beste mota bat aztertuko dugu, Euskadiko jarduera hartzaileari buruzko informazioa osatzeko.

Azterketa egiteko, galdetu egin diegu Euskadin zein Euskaditik kanpo salmenta-puntuak dituzten bidaia-agentzia nagusiei.

Zenbati galdetu ondoren, 2k eman dute horri buruzko informazioa.

Enpresa horiek emandako informaziotik ondorio nagusi hauek atera ditugu:

- > Martxotik ekainera bitartean dago behin betiko ezeztatze edo data-aldaketa gehien, eta erreserben % 100era ere iritsi dira.
- > Udako hilek -uztail eta abuztuak- erreserben % 100eko

Eraginda gertatu diren negozio-taldeen erreserbak, batez ere, enpresa-pizgarrienak eta biltzar edo konbentzio bati lotutako programenak dira. Talde horiek 50-100 pertsona dituzte batez beste.

ezeztatzeak eta aldaketak dituzte.

- > Udazkeneko hilabeteetan, irailetik azarora bitartean, erreserben % 90 ezeztatu dituzte edo haien data aldatu dute.
- > Eta, urte-amaierari begira, erreserben ezeztatzeak edo aldaketak % 90era iristen dira.
- > Eraginda gertatu diren aisia-taldeen erreserbak, batez ere, jolas-elkarteei, gazteak edo adingabeak dituzten familiei edo seniorren taldeei dagozkie. Aisia-talde horiek 20-50 eta 50-100 pertsona dituzte batez beste.

## 2.2 \_ Agentzia igorleak



Agentzia igorleei dagokienez, Euskadin zein Euskaditik kanpo salmenta-puntuak dituzten 3 agentziaren jarduera igorleari buruzko informazioa eskuratu dugu.

Enpresa horiek emandako informaziotik ondorio nagusi hauek atera ditugu:


- > Martxotik ekainera bitartean dago behin betiko ezeztatze edo data-aldaketa gehien, eta erreserben % 100era ere iritsi dira.
- > Udako hiletan -ekain eta uztailean- erreserben % 75eko ezeztatzeak eta aldaketak dituzte.
- > Udazkeneko hilabeteetan, irailetik azarora bitartean, erreserben % 50 ezeztatu dituzte edo haien data aldatu dute.

Eta, urte-amaierari begira, erreserben ezeztatzeak edo aldaketak % 25era jaisten dira.

- > Eraginda gertatu diren aisia-taldeen erreserbak, batez ere, jolas-elkarteei, gazteak edo adingabeak dituzten familiei, seniorren taldeei eta eskola-taldeei dagozkie. Aisia-talde horiek 20-50 pertsona dituzte batez beste.
- > Eraginda gertatu diren negozio-taldeen erreserbak, batez ere, enpresa-pizgarrienak eta biltzar edo konbentzio bati lotutako programenak dira. Talde horiek 50-100 pertsona dituzte batez beste.



# Biltzarrak, azokak eta bestelako ekitaldiak



Ekitaldi bat egiteak eragin ekonomiko handia dakarkio, zalantzarik gabe, hura hartzen duen tokiari, hala biltzen diren parte-hartzaile kopuru handiagatik nola ekitaldi bat egiteari lotuta berez dauden zuzeneko zein zeharkako enplegu eta enpresa ugariengatik.

Horrez gain, ekitaldi profesionalen kasuan (biltzarrak, konbentzioak, azokak eta jardunaldiak), horrelakoak egiteak

laguntzen du ezagutza ekartzen helmugara, bai eta horren urtarokotasuna murriztea ere, eskari handiko hilabeteak aisia-turismoko eskari gutxien dagoen hilabeteak dira eta; horrenbestez, elkarren guztiz osagarriak dira biak ala biak.

Halaber, ekitaldi ez-profesionalak, hala nola musika- eta kirol-arlokoak, lagungarriak ere badira, neurri handi batean, helmugaren sustapena egiteko.

Hori horrela, txosten honek mota horretako turismoaren eragile nagusietako biren informazioa biltzen du; egoitzen eta beste kongresu-eta biltzar-zentro batzuen eta biltzar-antolatzaile profesionalena (BAP), alegia.

## 3.1 Biltzar- eta azoka-egoitzak

## 3.2 BAP (Biltzar-antolatzaile profesionalak)

### 3.1 Biltzar- eta azoka-egoitzak



Biltzar- eta azoka-egoitzei dagokienez, orain arteko **galera metatuak 20.051.400 eurokoak** izan dira erantzun duten **18 egoitzetatik** (18 egoitza horiek Euskadiko guztien % 53 dira, hiri bakoitzeko Convention Bureauko bazkide kopurua erreferentziatzen hartuta).

2019koaren aldean, **2020. urteko batez besteko urteko fakturazioak % 46** egingo duela behera jotzen da.

Gutxi gorabehera **311 enplegu gertatuko dira** eraginda.

Eragindako enplegutik, **% 55 langile finkoei edo neurriek eragin gabeko aldi baterako langileei** dagozkie, eta **% 29, berriz, egoera oraindik zehaztu gabe duten langile finkoei.**

Aurreikusitako ekitaldien **behin betiko ezeztatze edo data-aldaketa gehien martxo, apiril eta maiatzean** izan dira.

Ekitaldien data aldatuta, **ekitaldi horiek 2020. urtearen amaierako hilabetetarako eta 2021. urterako geroratzen ari dira.**

Biltzar- eta azoka-egoitzen **% 63 ezeztatzeko gastuak itzultzen ari dira** ezeztatutako ekitaldien **erreserba guztiei** dagokienez.

### 3.1.1 Erantzun duten biltzar- eta azoka-egoitzen ezaugarriak


Kasu honetan Euskadiko **18 biltzar- eta azoka-egoitzeren** erantzuna jaso dugu; **% 53** dira horiek, hiri bakoitzeko **Convention Bureauko bazkideen kopurua** erreferentziatzen hartuta.

Erantzun duten 18 egoitza horietatik, **% 44 Bizkaian daude (8); % 44, Gipuzkoan (8), eta % 11, Araban (2).**

Arabian, egoitza eta zentroen **% 100ek** erantzun dute; **Bizkaian, % 53** dira, eta Gipuzkoan, berriz, **% 47** dira.

Egoitzek azpikontratatzan dituzten zerbitzu nagusiak **garbiketa, instalazioen mantentze-lanak, ikus-entzunezkoak, kudeaketa, ekipamendua, otordu-zerbitzua, muntatze-lanak, ostalaritza eta segurtasuna** dira, besteak beste.


Enplegu motak:



### 3.1.2 Biltzar- eta azoka-egoitzen eta haien langileen oraingo egoera

Egoitzen **% 40k ez dute jarduerarik, % 30 bai daudela jardunean**, eta gainerako **% 30ek ez du zehaztu** zein den jardueraren oraingo egoera.

Ezarritako lan-neurriak:



### 3.1.3 Biltzar- eta azoka-ekitaldien ezeztatzeak

COVID-19ak Euskadin honela eragin die ekitaldiei:

- Ekitaldien **behin betiko ezeztatzeak**: biltzar-egoitzen **erdientzat baino gehiagorentzat**, ezeztatutako ekitaldiek urterako aurreikusitako ekitaldi **guztien gainerako % 25eko** pisua dute. Egoitzen **% 18**rentzat, berriz, ekitaldi **guztien % 50** dira; egoitzen beste **% 13** baterako, ekitaldi **guztiak** dira, eta **% 9**rentzat, azkenik, **guztien % 75**.
- Ekitaldien **data-aldaketak**: biltzar-egoitzen **% 63**rentzat aldatutako ekitaldiak urterako aurreikusitako ekitaldi **guztien % 25** dira; egoitzen **% 22**rentzat, berriz, ekitaldi **guztien % 50** dira, eta biltzar-egoitza eta -zentroen **% 4**rentzat baino ez dira aurtan aurreikusita zituzten **ekitaldi guztiak**.

Egoitzen **% 100**etan, **apiril** eta **maiatzeko** ekitaldi **guztiak** ezeztatu dira.

Egoitzen **% 68**rentzat, **martxoan** ezeztatutako ekitaldiak **% 75-100** artean daude.


Egoitzen **% 70**rentzat, **ekainan** ezeztatutako ekitaldiak **% 75-100** artean daude.

Eta egoitzen **% 60**rentzat, **uztailan** ezeztatutako ekitaldiak **% 75-100** artean daude.

GUZTIZKO EZEZTATZEAK (**% 100**):



**% 75-100** ARTEKO EZEZTATZEAK:



### 3.1.4 Ezeztatutako edo data aldatutako biltzar edo ekitaldi motak

Biltzar-egoitzen **% 63k** adierazi dute **ezeztatutako edo data aldatutako** ekitaldien erdiak baino gehiago **ekitaldi profesionalak** direla.

Erantzun duten biltzar-egoitzetan ezeztatutako edo data aldatutako ekitaldien **% 54k egun bateko iraupena** dute; **% 40k, 2 eta 3 egun** artekoa, eta **% 4k, 3 egun baino gehiagoko** iraupena.

Erantzun duten biltzar-egoitzetan ezeztatutako edo data aldatutako ekitaldien **% 50era baino gehiagora 5.000 pertsona** baino gehiago joaten dira, eta nabarmentzekoa da ekitaldi horien **% 35era 20.000 lagun baino gehiago** joaten direla.

### 3.1.5 Ezeztatutako gastuak

Biltzar-egoitzen **% 63k** itzulketak egin dizkiete ezeztatutako ekitaldien erreserben **% 100ei**, eta **% 18k**, berriz, erreserben **% 25ei** egin dizkiete **itzulketak**. Azkenik, biltzar-egoitzen

eta -zentroen **beste % 18 batek ez die itzulketarik egin** erreserbei.

## 3.2 BAP (Biltzar-antolatzaile profesionalak)



Biltzarrek eta ekitaldiak antolatzen dituzten enpresa profesionalak (BAP), orain arteko **galera metatuak 993.622 eurokoak** izan dira erantzun duten **7 BAPetan** (OPCE Euskadiko Biltzarren eta Ekitaldien Enpresa Antolatzaile Profesionalen Elkarteko **kide guztien % 100** dira).

2019koaren aldean, **2020. urteko batez besteko urteko fakturazioak % 68** egingo duela behera jotzen da.

Jarduera-sektore horretako enpresa antolatzaileetan guztira **115 enplegu geratuko dira eraginda**; horietatik **% 55 lanaldiaren % 100** edo **% 50eko ABEEE duten langile finkoei** dagozkie, eta **% 22 neurriek eragin gabeko langile finkoei** edo **aldi baterako langileei** dagozkie.

Biltzarren edo ekitaldien **data-aldaketak pixka bat gehiago dira ezeztatzeak baino**; zehazki, **data-aldaketak guztien % 52** dira, eta **% 47, berriz, ezeztatzeak**.

Egitea aurreikusita zeuden ekitaldien **behin betiko ezeztatze edo data-aldaketa gehien martxo, apiril eta maiatzean** izan da.


Ekitaldien data aldatuta, ekitaldi horien **% 42 baino gehiago 2021erako edo 2022rako geroratu** dira; **% 28, 2020ko azken hiruhilekorako**, eta **% 28, aurtengo udaberriko azken hiletarako**.

Euskadiko BAP **gehienak ez zaizkie bezeroei ekitaldiak ezeztatutako gastuak kobratzen ari**.


Euskadiko BAPak **ez dira jasotzen ari hornitzaileei egindako gordailuen itzulketak ezeztatutako ekitaldien erdiatarako baino gehiagorako**.

### 3.2.1 Biltzarrek eta ekitaldiak antolatzen dituzten enpresa profesionalen (BAP) ezaugarriak

BAPera elkartutako enpresa guztiak honako hauetatik datoz:




Zerbitzuak azpikontratatzan dituztenek honako hauek aipatzen dituzte batez ere: **ikus-entzunezkoen enpresak** edo **itzulpen-zerbitzuak**, besteak beste.



### 3.2.2 BAPen eta haien langileen oraingo egoera

Ia BAP guztiak jarraitzen dute enpresako jarduerarekin.


Ezarritako lan-neurriak:




### 3.2.3 Ezeztatzeak eta data-aldaketak

COVID-19a Euskadin agertu zenetik **37 biltzar edo ekitaldi ezeztatuta edo data aldatuta gertatu dira** guztira, enpresek emandako informazioaren arabera.

Ezeztatutako edo data aldatutako biltzarren lurralde-banaketa:




Hasieran egin beharreko hilabetea:



Gaur egungo egoera:




### 3.2.4 Dataekin geroratutako biltzarrek edo ekitaldiak egitea aurreikusitako hilabeteak



### 3.2.5 Ezeztatutako edo data aldatutako biltzar edo ekitaldi motak

Erantzun duten BAPen ezeztatutako edo data aldatutako ekitaldien % **66 ekitaldi profesionalak** dira. Ekitaldi profesional horien % **45 biltzarrek** dira; % **37, jardunaldiak**; % **4, konbentzioak**; beste % **4 bat azokak** dira, eta % **8, beste tipologia batzuetakoak**, hala nola lantegiak eta abarrak.

Jarduera-sektoreak:




Ekitaldi ez-profesionalei dagokienez, ezeztatutako edo data aldatutako ekitaldi guztien % **33** dira. Ekitaldi ez-profesional horiek, bereziki, kultura-arlokoak (% **41**) eta kirol-arlokoak dira (% **25**).

Ezeztatutako edo data aldatutako ekitaldi guztien antolaketari lotutako zerbitzu motak honako hauek dira: langile laguntzaileak kasu guztietan (% **100**); ekitaldien % **79k** ikusentzunezko zerbitzuak dituzte; ekitaldien % **79k** otordu-

zerbitzuak dituzte; ekitaldien % **62k** biltzeko gelak dituzte; % **54k** ostatu-zerbitzuak kontratatuta dituzte; ekitaldien % **50ek** garraio-zerbitzuak dituzte, eta % **33k** itzulpen-zerbitzuak dituzte kontratatuturik.

Erantzun duten BAPetan ezeztatutako edo data aldatutako ekitaldien % **44k** egun bateko iraupena dute; % **30ek**, 2 eta 3 egun artekoa, eta % **25ek**, 3 egun baino gehiagoko iraupena.

Bertaratutako pertsona kopuruaren aurreikuspena:



Erantzun duten BAPen ezeztatutako edo data aldatutako ekitaldien jatorri-merkatuak aztertzen badugu, % **42**

nazioarteko merkatutik datoz; % **31**, Estatuko merkatutik, eta % **25**, barneko merkatutik (Euskaditik).

### 3.2.6 Ezeztatzeak gastuak

Biltzarrek edo ekitaldiak ezeztatzeak gastuei dagokienez, BAPek ez diete ezeztatzeak gasturik kobratu bezeroei ekitaldien % **91n**. BAPen ekitaldi guztien % **5ean** baino ez diete bezeroei ezeztatzeak gastuen % **25** kobratu.

Ekitaldi horietarako gordailuak BAPei itzultzen ari zaizkien hornitzaileen gutxi gorabeherako ehunekoari dagokionez, ekitaldien % **52n** ez dira hornitzaileen itzulketak jasotzen ari; ekitaldien % **36n** hornitzaile guztien itzulketak jasotzen ari dira, eta ekitaldien % **5ean** hornitzaileen % **25en** itzulketak jasotzen ari dira.

# Turismo aktiboa



Turismo helmuga gisa, Euskadiren bereizgarrietako bat da naturako turismoa dugula; horregatik, turismo aktiboko enpresak garrantzitsuak dira hirietatik kanpoko guneen balioa nabarmentzeko orduan, eta horrez gain, turismo arduratsua bultzatzen ere laguntzen dute, bai eta Estatuko eta nazioarteko turistak zein barnekoak erakartzen ere.

Turismo aktiboko zerbitzuen enpresei dagokienez, orain arteko galera metatuak 1.707.284 eurokoak dira erantzun duten turismo aktiboko zerbitzuen 32 enpresetan (turismo aktiboko zerbitzuen enpresa horiek AKTIBA Euskadiko Turismo Aktibo, Abentura eta Natur Jardueren Enpresen Elkarte kide guztien % 64 dira).

2019koaren aldean, 2020. urteko batez besteko urteko fakturazioak % 80 egingo duela behera jotzen da.


Erantzun duten enpresetan zuzeneko 229 enplegu gertatuko dira eraginda; enplegu horien % 36 berritu ez diren aldi baterako enpleguak edo egoera oraindik zehaztu gabe dutenak dira; % 22, ABEEEn dauden langile finkoak edo langile finko etendunak; % 11, aparteko prestazioa eskatu duten profesional autonomoak, eta, % 7, azkenik, hura eskatu duten profesional autonomoak.

Erreserben behin betiko ezeztatzeak gehiago dira (% 78) data-aldaketarik izan dutenak baino.

Behin betiko ezeztatze edo data-aldaketa gehien aurtengo udaberri eta udako hilabeteetan eta urtearen amaieran izan da.

Erreserben jaitziera handia dago 2020ko hilabete guztietan, 2019ko aldi berekin alderatuta, batez ere apirilean (-% 100), maiatzean (-% 93), abuztuan (-% 91) eta azaroean (-% 100).


## 1. Erantzun duten turismo aktiboko zerbitzuen enpresen ezaugarriak



Erantzun duten Arabako turismo aktiboko zerbitzuen enpresak lurralde horretako enpresa elkartuen % 50 dira; Bizkaian erantzun dutenak % 75 dira, eta erantzun duten Gipuzkoako turismo aktiboko enpresak lurralde horretako enpresa elkartuen % 44 dira.


Turismo aktiboko enpresek azpikontratatzeko dituzten zerbitzu nagusiak honako hauek dira: garbiketa eta higiena, segurtasun-zerbitzuak, laneko arriskuen prebentzioa, datuen babesa, mantentze-lan informatikoak, aholkularitza, instalazioen mantentze-lanak, online marketina, publizitatea, prestakuntza, besteak beste.

Enplegu motak:





## 2. Turismo aktiboko enpresetako enpleguaren oraingo egoera

Ezarritako lan-neurriak:



### 3. Ezeztatzeak eta data-aldaketak

COVID-19a Euskadin agertu zenetik **turismo aktiboko zerbitzuen 3.392 erreserba ezeztatuta edo data aldatuta gertatu dira** guztira; erreserba horiek **45.255 bezerori** eragin diete guztira.



Erantzun duten **turismo aktiboko zerbitzuen enpresa guztiei** dagokienez, **martxo, apiril, maiatza eta ekainean ezeztatuta edo data aldatuta gertatu dira erreserba guztien % 100.**

Erantzun duten **turismo aktiboko zerbitzuen enpresa guztiei** dagokienez:

- **Uztailean eta abuztuan erreserba guztien % 75 ezeztatu dituzte edo haien data aldatu dute.**
- **Urrian erreserba guztien % 25 ezeztatu dituzte edo haien data aldatu dute.**
- **Irailean erreserba guztien % 50 ezeztatu dituzte edo haien data aldatu dute.**

### 4. Erreserba berriak

COVID-19a Euskadin agertu zenetik jasotako erreserba berriak **2020ko abuztuaz geroztik urte-amaierara arteko hiletarako eta 2021ko bigarren hiruhilekorako** erregistratzen ari dira.

Erreserba berriak gehienbat **merkatu hauetatik** etorri dira: **barneko merkatua** –Euskadi–, **Estatuko merkatua** –Madrilgo Erkidegoa eta Katalunia nabarmentzen dira–, eta **nazioarteko merkatuak** –Frantzia eta Erresuma Batua nabarmentzen dira, besteak beste–.

### 5. Ezeztatzeko gastuak

Ezeztatzeko gastuei dagokienez, turismo aktiboko enpresa **guztiek** adierazi dute **ez dutela ezeztatzeko gasturik inoiz kobratu.**





# Turismo-gidariak



Gure helmugan turismo-gidariak eskaintzen duten zerbitzua funtsezkoa da haren zeharkakotasuna dela eta, bai eta, askotan, haien bidez bisitariei gure burua aurkezten zaielako ere.

Turismo-gidarien zerbitzuei dagokienez, orain arteko galera metatuak **327.446 euro**koak dira erantzun duten turismo-gidarien zerbitzuetako **26** enpresetan (enpresa horiek, gehienbat, pertsona bakarreko enpresak dira eta APITE Euskadiko Turismo Gidarien Elkarte Profesionalean dauden guztiak eta kolaboratzaileak dira).

Halere, datua zehaztu gabe, **2020ko urteko batez besteko fakturazioaren beherakada**, 2019koarekin alderatuta, **% 36**koa izango dela aurreikusten da (maiatzera arteko datua).

Eman dituzten erantzunen arabera, **26 enplegu** eraginda gertatuko direla kalkulatu da.

Guztiak **profesional autonomoak** dira, eta horietatik **% 90ek baino gehiagok aparteko prestazioari heldu diote.**

la guztiak **behin betiko ezeztatzeak** dira (**% 99**) data aldatu dieten erreserben aldean.


**Martxotik ekainera** arteko aldia izan da behin betiko ezeztatze edo data-aldaketa gehien, eta hilabete horietako gehienetan erreserben **% 100i** eragin diete horiek.

**Erreserba berri** gehienak aurtengo irailan eta **2021. urteko lehen hiruhilekoan** pilatzen ari dira.

**Erreserben jaitsiera handia egon da** 2020. urteko **martxotik uztaile** arteko aldi osoan zehar, eta **abuztutik aurrera** ziurgabetasuna da nagusi.


## 1. Erantzun duten turismo-gidarien zerbitzuetako enpresen ezaugarriak

**APITEko kide** diren turismo-gidarien zerbitzuetako **20 enpresa** eta enpresa kolaboratzailek erantzun dute.



Erantzun duten Euskadiko turismo-gidarien zerbitzuetako enpresak **APITEko kide** diren turismo-gidarien zerbitzuetako **enpresa eta turismo-gidarien enpresa kolaboratzaile guztien % 93** dira.


Kudeaketa motak:



## 2. Ezeztatzeak eta data-aldaketak

COVID-19a Euskadin agertu zenetik **turismo-gidarien zerbitzuen 1.205 erreserba** horietatik **1.189** behin betiko ezeztatu dituzte (**% 99**), eta **16 (% 1)** erreserbaren data baino ez dute aldatu. **guztira**; erreserba horiek **76.568 bezerori** eragin diete.

Ezeztatzeak edo data-aldaketak hilabeteen arabera:



Garrantzitsua da **gidarien fakturazioaren sasoikotasuna** nabarmentzea, **maiatza eta urria bitartean** metatzen baita, eta ezdeusa da urtearen gainerakoan.

## 3. Erreserba berriak

COVID-19a Euskadin agertu zenetik jasotako erreserba berriak **2020ko irailerako** eta **2021eko lehen hiruhilekorako** erregistratzen ari dira.

Erreserba berriak gehienbat **merkatu** hauetatik etortzen ari dira: **Estatuko merkatua -Madrilgo Erkidegoa** eta **Andaluzia** nabarmentzen dira-, eta **nazioarteko merkatua -Frantzia, Alemania** eta **Italia**, besteak beste-.

## 4. Ezeztatzeko gastuak

Ezeztatzeko gastuei dagokienez, turismo-gidarien zerbitzuen enpresa **guztiek** adierazi dute **ez dutela ezeztatzeko gasturik inoiz kobratu.**

# Ostalaritza



Ostalaritza-sektoreak eragin larria izan du, zalantzarik gabe, establezimenduak, gainera, nahitaez itxi beharra izan dela kontuan hartuta (SND/257/2020 agindua). Hori horrela, enpresen % 100ek izan dute eragin nabarmena.

Txosten honetarako, honako hau adierazi dute Euskadiko hiru ostalaritza-elkartek:

## SEA Ostalaritza (Arabako ostalaritza-enpresen elkartea):

- SEA Ostalaritza 52 enpresaz osatuta dago, eta 630 langile inguru biltzen dituzte enpresa horiek guztiak.
- Gaur egun, **% 85 ABEEE egoeran daude (44 enpresa)**.
- Fakturazioak % 75etik gorako jaitziera izan du enpresen % 100ean.

## Gipuzkoako Ostalaritza Elkartea:

- Hauek hartzen ditu barnean: 1.050 enpresa eta 8.000 bat langile. Lan-kudeaketa egiten diete 466 enpresari.
- Gaur egun, 466 enpresa horietatik **% 90 (419 enpresa) ABEEEn** edo **jarduera-etenda** (autonomoak) daude.

## Bizkaiko Ostalaritza Elkartea:

- 1.400 elkartekide ordezkatzan dituzte eta 400 enpresaren lan-kudeaketa egiten dute; 3.000 langile dira guztira.
- Horien **% 97 (388 enpresa) ABEEEn** daude gaur egun.



Txosten honetan jasotako informazioa  
honako hauei esker lortu dugu:

**Bilboko Convention Bureau**

**Donostiako Convention Bureau**

**Gasteizko Convention Bureau**

**Gipuzkoako Hotelak**

**SEA - Arabako Enpresak**

**Gipuzkoako Ostalaritza Elkartea**

**Bizkaiko Ostalaritza Elkartea**

**Nekatur (Euskadiko Nekazaritza Turismo eta Landetxeen Elkartea)**

**Campingen Euskadiko Federazioa**

**Aparture (Euskadiko Etxebizitza Turistikoen Elkartea)**

**ATRAE (Euskadiko Turismo Agentzia Hartzaile Elkartuak)**

**Asoarte (Euskadiko Turismo Agentzia Hartzaileen Elkartea)**

**OPCE (Euskadiko Biltzarren eta Ekitaldien Enpresa  
Antolatzaile Profesionalen Elkartea)**

**AKTIBA (Euskadiko Turismo Aktibo, Abentura eta  
Natur Jardueren Enpresen Elkartea)**

**APITE (Euskadiko Turismo Gidarien Elkarte Profesionala)**

Bai eta erantzunez laguntza eman duten EAEko **604 enpresari** esker ere.

Txosten honen informazioari buruzko edozein zalantza, galdera edo zuzenketarako,  
mesedez, jarri harremanetan honen bidez: [observatorio@basquetour.eus](mailto:observatorio@basquetour.eus).

Zure jarduerarekin lotutako beste edozein informazioari dagokionez,  
jarri harremanetan honen bidez: [saretour@basquetour.eus](mailto:saretour@basquetour.eus).

**BASQUE  
TOUR** *turismoaren  
euskal agentzia*  
*agencia vasca  
de turismo*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO